

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

116/2026 Foru Dekretua, uztailaren 24koa, onespena ematen diona ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarietarako hautagaiak baloratu behar dituen epaimahaiaren izendapenari

Ekainaren 10eko 84/2026 Foru Dekretuaren bidez, ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarien deialdia onartu zen.

Deialdiaren zazpigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, epaimahaia izendatu beharra dago.

Arlo Estrategikoen Zuzendaritzak egindako txostena ikusi da.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ekonomia zirkularreko, industrializazio jasangarriko, energia garbiak ezartzeko eta ekodiseinuko jardunbide egokien sarien epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Honako hauek izango dira epaimahaikideak:

— Javier Gorbeña Mardones, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko teknikaria.

— Kristina Apiñaniz Saez de Maturana, Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Ituna 9. GJHren lantaldearen aldetik.

— José María Fernández Alcalá. IHOBEn ekonomia zirkularraren arloko zuzendaria.

Epaimahaiko idazkaria Mónica Puente Rodríguez izango da, eta ordezkoa, Andrea Ranedo Villar.

Bigarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratu dadila agintzea, guztiek jakin dezaten, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Arlo estrategikoen zuzendaria

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO